

Ebazpena: R027/2023

Espedientea: 9/2016

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, MSLk 2007ko urtarrilaren 10ean zerga-egoitza aldatu zuela-eta. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 9/2016 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- MSL 2003ko urriaren 6an eratu zuten AGSLUk eta AESLk, Malagan. Planteatutako gatazkaren ondorioetarako, honako hauek dira MSLren datu garrantzitsuenak:

- a) Egoitza soziala Alteako (Alacant) C kalean zegoen.
- b) JFM jauna izendatu zen administratzaile bakar.
- c) Objektu soziala mota guztietako landa- eta hiri-finkak salerostea eta ustiatzea da, bai eta mota guztietako higiezinak urbanizatzea,

partzelatzea, eraikitzea, sustatzea eta birgaitzea ere, norberaren kontura edo besteren kontura.

2. Espedientean jasotako datuen arabera, 2015eko urtarrilaren 24an JFM jaunak administratzaile bakarraren kargua utzi zuen, eta JMRS jauna eta CGMC jauna izendatu ziren administratzaile mankomunatu. Horiek, era berean, 2005eko apirilaren 11n utzi zuten kargua, eta CGMC jauna izendatu zuten administratzaile bakar.

2008ko irailaren 8an, JMRS jauna ahalordedun izendatu zen, baina espedientean jasotako datuen arabera, gerora MSLko administratzaile bakar izendatu zuten, baina ez da izendapenaren data aurkeztu.

3.- 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako MSLren BEZaren aitortzen, itzultzeko emaitzarekin, Donostiako I kalea agertzen zen haren egoitza gisa. Dena den, JMRS jaunak 2014ko abenduaren 15eko posta ziurtatuaren bidez aurkeztutako adierazpenetan, igorlearen egoitza Benalmádenako (Malaga) V kalean zegoen. Halaber, 2015eko urtarrilaren 20ko posta ziurtatuaren bidez, JMRS jaunak berariaz eskatu zuen jakinarazpenetarako helbidea aipatutako azken hori izatea MSLri dagokion guztian.

4.- GFAk, dagozkion egiaztapen-jarduketak egin ondoren, 2015eko uztailaren 29ko idazkian ondorioztatu zuen nahikoa zantzu zeudela egoitza aldatzeko espedientea hasteko, MSLk egoitza lurralde erkidean zuela uste baitzuen.

5.- 2015eko abuztuaren 11ko txostenean, MSLren egoitza Malagako B kalera aldatzeko espedientea hastea proposatu zuen GFAk, 2007ko urtarrilaren 10etik

aurrerako ondorioekin, data horretan inskribatu baitzen Merkataritza Erregistroan Malagatik Donostiarako egoitza-aldaketa. GFAk egoitza aldatzeko proposamenaren oinarritzat hartu zuen MSLren ondorengo administratzaileek eta/edo ahalordedunek egoitza Malagan zutela, ibilgetua Malagan zuela, eta Malagan egin dituela eragiketak, eta, horrez gain, Gipuzkoan ez zuela langilerik kontratatuta.

6.- 2015eko abuztuaren 18an, GFAk MSLren egoitza aldatzeko proposamena jakinarazi zion ZAEARI, 2007ko urtarrilaren 10etik aurrerako ondorioekin. Proposamen hori 2015eko azaroaren 17an eta 2016ko otsailaren 8an errepikatu zen.

7.- Ekonomia Itunaren 43. artikuluan ezarritako lau hilabeteko epea igarota, ZAEAK ez zion proposamenari erantzun, eta GFAk 2016ko martxoaren 21ean aurkeztu zion gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari.

8- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egiteko eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAK izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin du GFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio *Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea*.

2.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak, GFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuta, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea, prozeduraren xedea galdu delako, ZAEAk MSLren egoitza Malagara (B kalea) aldatzeko GFAREN proposamenari amore ematearen ondorioz, 2007ko urtarrilaren 10era arteko atzeraeraginekin.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta MSLri jakinaraztea.